

# PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Ikasgaia: Biologia eta Geologia

HBI: Biodibertsitatea ikertzen

Ikasturtea: DBHko 1. maila

## DESKRIPZIOA

HBI honetan biodibertsitatea ikertuko dugu: zer den, nola neur dezakegun, zergatik den garrantzitsua mantentzea, gizakiak duen teknologiarekin zer eragin positibo edo kaltegarri izan dezakeen eta zer egin dezakegun galera saihesteko. Lehen gerturatze bat egingo dugun arren, geroago ikertuko ditugu ekosistemak, izaki bizidunak bizi diren inguruarekin eta beren artean lotzen dituzten harremanak.

Sekuentzia didaktikoa askotariko ikaskuntza-egoerek osatzen dute, erronka gisa aurkeztuta, zenbait saiotan lantzeko. Horiek guztiek STEM kompetentzia eta gainerako funtsezko kompetentziak garatzen laguntzen dute, baita XXI. mendeko hezkuntzaren erronkak ere.

Erronka bakoitza ikerketa gidatuen bidez ebazten da, azken ekoizpen batekin lotuta.

## METODOLOGIA

Erronka motibatzaileetan oinarritutako ikaskuntza: ikerketa zientifikoko eta ikaskuntza kooperatiboko prozesua dakarte, HBlaren printzipioekin bat

## ERRONKA / AZKEN PRODUKTUA

HBlan zehar, erronka bakoitzarekin lotuta zenbait ekoizpen sortzen dira:

- Egindako ikerketen txosten zientifikoak
- Kontakizun zientifikoa
- 3D posterra
- Organismoen bilduma digitala
- Biodibertsitatearen egunerako kanpaina bateko diseinua

## ATAZAK

- Laborategian, gelan edo etxean hainbat gairi buruz egindako ikerketak (biodibertsitatearen alderdi genetikoa, eremu bateko biodibertsitatea, etab.).
- Erreinu desberdinetako espezieen inbentario digitala
- Museo birtualeko bira
- Modelo zientifikoeekin egindako lana
- Georreferentziazio-tekniken erabilera
- Hainbat gairi buruzko eztabaidak (biodibertsitateari eusteko beharra, mehatxatutako espezieak, animalien erabilera...)
- Biodibertsitate-galerari buruzko jolasak
- Kontakizun kooperatibo baten idazketa
- Biodibertsitatearen ginkana

## EBALUAZIOA

Askotariko proposamenak, aniztasunari erantzuteko:

- Ebaluatzeko eskalak, irakasleak edo ikasleak erabil eta egoki ditzaketen irizpideekin (koebaluazioa, autoebaluazioa)
- Hausnartzeko ikaskuntza-egunkariak (metakognizioa)
- Ikaskuntza-portfolioaren proposamena

## TALDEAK

Talde mota desberdinetan egiten da lan, proposatutako atazen arabera:

- 4ko taldeak
- Binaka
- Banako lana
- Ikasgelako taldea

## SAIO-KOP.

- Ikasgelako 26 saio